



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2018KO UZTAILAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Arkaitz Fraile Quijera
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Jose Ignacio Ayestaran Irurzun

IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Kontuhartzailea: Lierni Muñoa Salaberria

Ibarran, **bi mila eta hemezortziko uztailaren hogeita seian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2018ko maiatzaren 31an egindako Ohiko Udalbatzaren aktaren onarpena**
- 2.- 2018ko ekainaren 19an egindako Ez-Ohiko Udalbatzaren aktaren onarpena**
- 3.- 179/2018tik 258/2018ra Alkate Dekretuak jakinaraztea**
- 4.- Tokiko Gobernu Batzordeak kulturako diru-laguntzen oinarriak onartzeko espedientean urgentzia deklaratzearen berri eman**
- 5.- Tokiko Gobernu Batzordeari esleituriko eskuduntza baten ezeztatzearen berri ematea**
- 6.- 2018ko uztailaren 12an buruturiko Ogasun Batzordearen irizpenen inguruko erabakiak**

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.1.- 2017ko Kontu Orokorraren behin-betiko onarpena

6.2.- 2018ko Ordenantza Fiskalean aldaketa puntuala ikasturteko kurtsoei dagokionean

6.3.- 2018ko aurrekontuaren 2. Hiruhilabetekoaren exekuzioaren berri ematea

7.- Gipuzkoako Batzar Nagusiak proposaturiko deklarazio instituzionala: 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin-behinean aske uzteari buruzkoa

8.- Galdera eta eskaerak

LEHENA:

1.- 2018KO MAIATZAREN 31AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2018ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2018ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

2. 2018KO EKAINAREN 19AN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2018ko ekainaren 19ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2018ko ekainaren 19ko ez-ohiko bilkurako akta

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA:

3. 179/2018TIK 258/2018RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2018ko maiatzaren 31tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 179/2018tik 258/2018ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

LAUGARRENA

4.- TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK KULTURA DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ONARTZEKO ESPEDIENTEAN URGENTZIA DEKLARATZEAREN BERRI EMAN

2018ko uztailaren 20an Ibarra Udaleko Kultura eta Gazteria Teknikariak idazkaritzan dokumentu bat aurkezten du honakoa adieraziz:

Kultura eta Gazteria Batzordeari jakinarazten zaio 2018 urterako Kultura arloko diru-laguntzen deialdia Kultura eta Gazteria batzordearen irizpenik gabe 2018ko uztailaren 6an egin zen Tokiko Gobernu Batzordean urgentziaz onartu zela.

Diru-laguntzen deialdia 2018ko uztailaren 17an 13. GAOn argitaratu da.

Kultura eta Gazteria Batzordeak hurrengo Udalbatzan eguneko gai zerrendan Tokiko Gobernu Batzordeak urgentziaz harturiko erabakiari buruz erabaki dezan eskatu dio espreski.

Ikusirik 2018ko uztailaren 6an buruturiko Tokiko Gobernu Batzordeak honako erabakia hartu zuela:

LAUGARRENA

KULTURA ARLOAN 2018. URTERAKO EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIAREN ONARPENA

Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Tokiko entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa arautzen duena) 126. artikulua baita Gobernu Batzorde honek urgentziazko kasua deklaratzeko du Kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen oinarriak eta

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

deialdiaren onarpena egiteko (ikusirik Batzorde informatiboaren irizpenik ez dagoela diru-laguntza hauen deialdia onartzeko)

Ikusirik deialdia egitea ezin bestekoa dela (diru-laguntzak emateko epea luzatu egiten baita eta interesatuen interesa ikusita) eta Kultura arloko Batzorde informatiboa egitea ezinezkoa izan dela, deialdia onartzeko urgentzia deklaritzen da.

Ikusirik 2018. urterako emango diren diru-laguntzen deialdia, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Tokiko entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa arautzen duena) 126. artikulua baitan urgentziako egoera deklaratzeko kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen deialdia onartzeko.

BIGARRENA: Onartzea kultura arloan 2018 urterako emango diren diru-laguntzen deialdia (I eranskinean jasoak)

HIRUGARRENA: Kultura eta gazteria batzordeari jakinaraztea ospatzen den lehen batzordean egoera honen berri ematen duela Tokiko Gobernu Batzordeak

LAUGARRENA: Jakinaraztea Kultura eta Gazteriako batzordekideei 2568/1986 Errege dekretuaren 126. Artikuluaren baitan ospatzen den hurrengo Udaltzaren puntu hau barneratzea eskatu behar dutela Udaltzak deklaratu den urgentziaren inguruan eztabaida dezan fiskalizazio eta kontrol eskumena beregain baitu.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri eman Kultura eta Gazteria teknikariari eta Kontuhartzaitzari.

SEIGARRENA: 2018. Urterako emango diren diru-laguntzen deialdia GAOn argitaratzea

Ikusirik urgentziaren arrazoia epeak eta Kultura eta Gazteria batzordea eratzeko ezintasuna zela, herritar interesatuen eskaerak kontutan hartuz deklarazioa egin zen.

Ikusirik Azaroak 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (Tokiko entitateen antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa arautzen duena) 126. Artikuluak baimentzen duela Tokiko Gobernu Batzordeak urgentziako kasua deklaratzeko beti ere Udaltzaren erabakiari baldintzatuta gelditzen delarik.

Udaltzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea 2018ko uztailaren 6an Tokiko Gobernu Batzordeak deklaraturiko urgentzia kasua Kultura arloko diru-laguntzen deialdia onartzeko espedientean.

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BOSGARRENA

5.- GOBERNU BATZORDEARI ESLEITURIKO ESKUDUNTZA BATEN EZEZTATZEAREN BERRI EMATEA

2018ko uztailaren 21eko datarekin, Ibarra Alkate den Mikel Agirrezabala Ezkurdia jaunak honako Alkate Dekretua sinatzen du:

2018/ 259 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik 180/2015 Alkate Dekretu bidez, Alkateak Tokiko Gobernu Batzordearen alde honako eskuduntza egin zuela:

12.- 1000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea, diru laguntza hauen oinarriak onartzea eta diru laguntza hauen zuriaketak onartzea.

Ikusirik diru-laguntza izendunetan (aurrekontuetan onartuak daudenak) egiten diren hitzarmenen onarpena (eskuduntzak zehaztasunik ez baita egiten) Tokiko Gobernuak egiten duela

Ikusirik prozeduran atzerapena dakarrela eta zentzuduna dela aurrez Udaltzain onartu diren aurrekontuetan eta baita diru-laguntzen planean aurririk daudela diru-laguntza izendun hauek.

Ikusirik Alkateak eskuduntza ezeztatu nahi du partzialki. Ezeztapena soilik diru-laguntza izendunetan eman nahi da ez ordea beste diru-laguntzetan, non Tokiko Gobernu Batzordea izango den eskuduna oinarriak eta zuriaketak onartzeko bai eta diru-laguntzak emateko ere.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaian indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautzea onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Ezeztatzea partzialki 180/2015 Alkate Dekretu bidez Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari emandako eskuduntza, non 1000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea, diru laguntza hauen oinarriak onartzea eta diru laguntza hauen zuriaketak onartzea Tokiko Gobernuari esleitzen zitzaion.

BIGARRENGOA.- Onartzea diru-laguntza izendunetan, 15.000 eurotako kopurua gainditzen ez duten kasuetan soilik, Alkateak eta honek ahalordetzen duen zinegotziak, eskuduntza izatea diru-laguntza hauek emateko eta baita hauen oinarriak eta zuriaketak onartzeko ere. Kopurua gainditzen den kasuetan aldiz, Tokiko Gobernu Batzordea izango da diru-laguntza zuzen hauek eman eta hauen oinarriak eta zuriaketak onartzeko.

HIRUGARRENGOA.- Udaltzain burutzen duen hurrengo ohiko bilkuran dekretu honen berri ematea.

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarran, 2018ko ekainaren 21ean

2018/259 Alkate Dekretuaren baitan 2015eko ekainaren 30ean buruturik Udalbatzan jakinarazi zen 180/2015 Alkate Dekretuko 12. puntuan, Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari esleituriko eskuduntzan aldaketa onartzen du.

Udalbatza honi jakinarazten zaio 180/2015 Alkate Dekretu bidez Alkateak Tokiko Gobernu Batzordeari emandako eskuduntza, non 1000 eurotik gorako diru-laguntzak ematea, diru laguntza hauen oinarriak onartzea eta diru laguntza hauen zuriketak onartzea Tokiko Gobernuari esleitzen zitzaion, partzialki ezeztatzen dela. Ondorioz, 2018ko ekainaren 21etik aurrera Tokiko Gobernu Batzordeak 1000 eurotik gorako diru-laguntzak eman, hauen oinarriak eta zuriketak onartuko ditu eta **diru-laguntza izendunetan aldiz, 15.000 eurotik beherako kopuruetakoetan soilik, Alkateak eta honek ahalordetzen duen zinegotziak izango du eskumena (diru-laguntza zuzen hauek eman eta hauen oinarriak eta zuriketen onarpena egiteko).**

Udalbatzari berri emanda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da 259/2018 Alkate dekretuak agintzen duen ezeztatze partziala.

SEIGARRENA

6.- 2018KO UZTAILAREN 12AN BURUTURIKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

6.1 2017KO KONTU OROKORRAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

Ogasun Batzordeak 2017 urteko Ibarra Udal kontu orokorraren berri eman dio Udalbatza honi.

2018ko uztailaren 12an buruturiko Ogasun Batzordearen irizmena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Onartzea 2017ko Ibarra Udaleko kontu orokorra, behin-betiko izaerarekin.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman TVCP-ari bi administrazioen artean hitzarturik dagoen prozedimendua jarraiki.

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.2 2018KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA PUNTUALA IKASTURTEKO KURTSOEI DAGOKIONEAN

Ogasun Batzordeak 2018 urteko Ordenantza Fiskaletan honako aldaketa puntuala egitea proposatzen dio Ibarra Udalbatzari:

Lehena.- Ondorengo balioen aldaketa burutzea udal ordenantza fiskaletan
Primero.- Realizar la siguiente modificación en la Ordenanza Fiscal

- 1.- Ezabatzea guraso eskolari dagokion tasa/ Eliminar la tasa correspondiente a la escuela de padres.**
- 2.- Ezabatzea kultur ikastaroei dagozkien tasak/Eliminar las tasas correspondientes a talleres culturales**
- 3.- Ezabatzea kiroldegiko kurtsoei dagokien tasak/Eliminar las tasas correspondientes a cursos deportivos**
- 4.- Prezio publikoei dagokien ondorengo ordenantza onartzea/Aprobar la siguiente ordenanza relativa a los precios públicos.**

UDAL JARDUERAK PREZIO	ZERBITZUAK EGITEARI PUBLIKOAK	EMAN DAGOZKION ARAUTZEA	EDO DAGOZKION ARAUTZEA	ORDENANZA DE PRECIOS PUBLICOS DE PRESTACIÓN DE SERVICIOS MUNICIPALES Y ACTIVIDADES
1.	Art.-	Foru	arautua.	Art.1º.- Normativa Foral.
Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak prezio publikoei buruz xedatzen duenarekin bat, udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteari dagozkion prezio publikoak arautu eta galdatu egiten dira.				De conformidad con las disposiciones sobre precios públicos establecidas en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se regula y exigen los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.
2. Art.- Prezio publikoak jartzeko kasuak.				Art. 2º.- Supuestos de precios públicos.
1.- Prezio publikotzat hartuko dira Udal honek dituen bere eskumeneko zerbitzu nahiz administrazio-jarduerengatik ordaindu beharreko diruzko ordainak, hauetako bat gertatzen denean:				1.- Tendrán la consideración de precios públicos, las contraprestaciones pecuniarias que se satisfagan por la prestación de los servicios o realización de actividades administrativas de la competencia de este Ayuntamiento, cuando concorra alguna de las dos circunstancias siguientes:

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

a) Administratuek obligazioz eskatu edo hartu behar dituzten zerbitzu publikoak nahiz administrazio-jarduerak ez izatea.

b) Zerbitzu publikoak nahiz administrazio-jarduerak sektore pribatuak eman edo egin ditzakeenak izatea, partikularren jarduketarik edo inolako agente-adierazpenik ez dakartelako nahiz indarreko araudiak Udalaren alde erreserbatutako zerbitzuak ez direlako.

3. Art.- Ordaindu beharra dutenak.

Prezio publikoak ordaintzeko betebeharra zerbitzu nahiz jardueraz onura eskuratzen dutenek izango dute.

4. Art.- Gestioa.

1.- Prezio publikoak erabaki eta aldatzea Udaltzaren eskumena da Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 11/1989 uztailaren 5eko Foru Arauak 50. artikuluan xedaturikoaz bat.

2.- Zerbitzu publikoen zenbatekoa eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko da, eta murriztu ezina izango da prezioa ezartzeko dokumentuan, baldintzen orrian, kontratuan edo onarpen-ebazpenean adierazitako aldiekiko.

3.- Prezio publikoen zenbatekoa, zerbitzuaren helburu, ezaugarri eta erabilgarritasunaren arabera zehaztuko da.

a) Que los servicios públicos o las actividades administrativas no sean de solicitud o recepción obligatoria por los administrados.

b) Que los servicios públicos o las actividades administrativas sean susceptibles de ser prestadas o realizadas por el sector privado, por no implicar intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación de autoridad, o bien por no tratarse de servicios en los que esté declarada la reserva a favor del Ayuntamiento con arreglo a la normativa vigente.

Art. 3º.- Obligados al pago.

Están obligados al pago de estos precios públicos, quienes se beneficien de los servicios o actividades.

Art. 4º.- Gestión.

1.- La fijación y modificación de los precios públicos es, de conformidad con lo dispuesto en el art. 50 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, competencia del Ayuntamiento Pleno.

2.- El importe de los servicios públicos se satisfará por cada servicio o actividad, solicitados o realizados, y será irreducible respecto a los periodos señalados en el documento de fijación del precio, Pliego de Condiciones, contrato o resolución de su admisión.

3.- El importe de los precios públicos, se determina en función de la finalidad perseguida con el servicio, características y utilidad del mismo.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5. Art.- Ordaintzeko moduak eta epeak.

Prezio publikoak honela ordainduko dira:

1.- Zerbitzua eman edo jarduera egin baino lehen, baldintzen orrian, kontratuan edo onarpen-ebazpenean agertzen den eran eta epean.

2.- Izaera dela-eta aurretik ordaindu ezin diren zerbitzuak ematen direnean edo jarduerak egiten direnean, ordainagiri bakoitzean aipatzen den eran eta epean.

3.- Aldizkako zerbitzuak eman edo jarduerak egiten direnean, errolda edo erregistro baten bitartez kudeatuz gero, agiri horren onespenez-izapidean aipatutako epean.

6. Art.- Salbuespenak eta hobariak.

1.- Haur eskolan salbuespenaren onuradun izango dira hauek :

a) Haur eskolako zerbitzuak eskatzen dituzten familiak, baldin eta urtean lanbide arteko gutxieneko soldata edo hura baino gutxiago jasotzen badute .

b) Haur eskolako zerbitzuak eskatzen dituzten familia ugari kategoría bereziko eskatzaileak.

2.- Haur eskolan hobariaren onuradun izango dira honako hauek : :

a) Kuotaren %25, instalazio berean bibe-arreba dituzten haur eskolako zerbitzuak eskatzen dituzten familiak.

Art. 5º.- Formas y plazos de pago.

El pago de los precios públicos se realizará:

1.- En las prestaciones de servicios o realización de actividades, con carácter previo a la prestación del servicio o a la realización de la actividad en la forma y plazo señalado en el pliego de condiciones, contrato o resolución de la admisión.

2.- En las prestaciones de servicios o realización de actividades en los que por su naturaleza no sea posible el pago previo, en la forma y plazo señalado en el correspondiente recibo.

3.- En las prestaciones de servicios o realización de actividades periódicas, gestionadas con la formación de un padrón o registro, en el plazo señalado en el trámite de aprobación de este documento.

Art. 6º.- Exenciones y bonificaciones.

1.- Gozarán de exención en la escuela infantil:

a) Las familias solicitantes del servicio de escuela infantil que perciban unos ingresos anuales iguales o inferiores al salario mínimo interprofesional.

b) Las familias solicitantes del servicio de escuelas infantil de categoría especial

2.- Gozarán de bonificación en la escuela infantil:

a) Del 25% de la cuota, las familias solicitantes con dos hermanos/as en la misma instalación



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

b) Kuotaren %50, kategoria orokorreko kide anitzeko haur eskolako zerbitzuak eskatzen dituzten familiak

Zergaldi bakoitzean ezingo da hobari bat baino gehiago izan inoiz ere.

7. Art.- Baldintza orrietan arautu beharrekoak.

1.- Zerbitzua eskatzen duenaren eta Udalaren artean sortzen diren eskubideak eta betebeharrak baldintza orrietan jarriko dira. Zerbitzu mota bakoitzak bere baldintza orri mota edo eredua izango du. Baldintza orri horiek kasu bakoitzean izango diren baldintza teknikoak eta administratiboak bilduko dituzte, Udaleko Zerbitzu Teknikoek proposatuko dituzte eta Gobernu Batzarrak onartuko.

2.- Baldintza orri mota edo eredu guztiek alderdi hauek jasoko dituzte:

a) Zer zerbitzu eta zenbat denboran eman behar den, aldiro eman beharrekoa den edo epe jakinik gabe ematekoa den ere jarrita.

b) Zerbitzua eskatzen duenak zer diru ordaindu behar duen, zenbat den prezio publikoa, zer tarifa den, zer ordain modu dagoen eta, jarri beharrik bada, zer berme jarri behar den.

c) Aurrez ere zerbait ordaindu edo jarri behar den.

d) Zerbitzua behar bezala eman ahal izan dadin eskatzaileak dituen betebeharrak, ordaindu behar duen dirua ez beste gaineretikoak.

b) Del 50% de la cuota, las familias solicitantes de familia numerosa de categoría general

En ningún supuesto se podrá disfrutar de más de una bonificación en relación a un período impositivo.

Art.7º.- Condiciones a regular en los pliegos.

1.- Los derechos y obligaciones que surjan entre el solicitante del servicio y el Ayuntamiento se establecerán para cada modalidad del servicio en los correspondientes pliegos-tipo de condiciones técnico-administrativas que serán aprobados por la Junta de Gobierno Local a propuesta de los correspondientes Servicios Técnicos Municipales.

2.- Se incluirán en los pliegos-tipo de condiciones, los siguientes aspectos:

a) Descripción del servicio que se preste y duración del mismo así como su carácter periódico o irregular.

b) Obligaciones pecuniarias del solicitante del servicio, importe del Precio Público con arreglo a tarifa, modalidades de pago, y en su caso garantías exigibles.

c) La necesidad en su caso del depósito previo.

d) Las obligaciones no pecuniarias del solicitante en orden al adecuado desarrollo del servicio.

e) Penalidades por incumplimiento de obligaciones, recogidas en el pliego.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

e) Betebeharrak ez betetzeak dakartzan zigorrak, baldintza orrietan jasotakoak.

8. Art.- Baldintza orriak sinatzea eskatzaileak.

Zerbitzuaren eskatzaileak inprimaki ereduko baldintzekiko adostasuna orria izenpetuta adieraziko du.

9. Art.- Baldintza orrien informazioa.

Zerbitzuaren nolakotasuna dela-eta baldintzen orri-eredua sinatzea beharrezkotzat jotzen ez denean ere, orri horiek zerbitzu-eskatzailearen esku egongo dira.

10. Art.- Ordaindutakoa itzultzea.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez denean, bidezkoa izango da zenbatekoa itzultzea.

11. Art.- Behartze-bidez kobratzea.

Udalak behartze-bideko prozedura administratibo bidez eska ditzake prezio publiko hauei dagozkien zorrak.

Art. 8º.- Suscripción de los pliegos por los solicitantes.

El solicitante del servicio prestará su conformidad a las condiciones impuestas en los pliegos-tipo mediante la suscripción del mismo.

Art. 9º.- Información de los pliegos.

Cuando por la naturaleza del servicio no se considere imprescindible la suscripción en los pliegos-tipo de condiciones, éstos estarán, en todo caso a disposición del solicitante del servicio.

Art. 10º.- Devolución de los importes.

Cuando por causas no imputables al obligado al pago del precio público no se realice la actividad, procederá la devolución del importe correspondiente.

Art. 11º.- Cobro por el procedimiento de apremio.

El Ayuntamiento exigirá en su caso las deudas por estos precios públicos por el procedimiento administrativo de apremio.

Disposición

Final

Azken xedapena.

Ordenantza hau indarrean sartuko da GAO on argitaratutako hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean egongo da bere aldaketa edo iraungitzea erabaki bitarte.

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y se mantendrá en vigor mientras no se acuerde su derogación o modificación.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5.- Kultur tailerrei dagokionean honako prezio publikoen araudia onartzea.
/Aprobar la normativa de los precios públicos correspondientes a talleres culturales.

2. KULTUR TAILERRAK

TALLERES CULTURALES

Tailer kulturalak prezio publikoak	2018 – 2019 IKASTURTEA	Talleres Culturales precios publicos
Laburrak, astean 2 ordu	73,43	Cursos de corta duración, 2 horas semanales
Luzeak, astean egun bat bi ordu	96,68	Cursos de larga duración, (un día) Dos horas a la semana
Luzeak, bi egun, lau ordu astean.	192,82	Cursos de larga duración, (dos días) Cuatro horas a la semana

Hobariak		Bonificaciones
Gazte Txartela	10%	Gazte Txartela
Familia ugaria	50%	Familia Numerosa

PREZIO PUBLIKOAK APLIKATZEKO ARAUAK

- 1. Izen-emateak kultur-etxean egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia betez. Inprimakiarekin batera ordainagiria aurkeztu beharko da.*

NORMAS DE APLICACIÓN DE LOS PRECIOS PUBLICOS

1. Las inscripciones se harán en las oficinas de la Casa de Cultura, en horario de Oficina, mediante la formalización del correspondiente impreso, y se entregará el justificante de ingreso del curso.

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. *Ikastaro bat antolatu ahal izateko, gutxienez 8 pertsona beharko dira.*

3. *Udalak ikastaroen kobraketa honela egingo du epe luzeko kurtsoetarako:*

- *Lehen kobraketa: 2018ko azaroren 15ean*
- *Bigarren kobraketa: 2019ko martxoaren 15ean*

Gainontzeko kurtsoak ordainketa bakarrean burutuko dira.

Kopuru osoa interesatuak emandako Kontu korrontean kobratuko da.

2. Para que un curso se organice será necesaria la inscripción de un mínimo de 8 personas en el mismo.

3.El Ayuntamiento procederá al cobro del curso de la siguiente manera para los cursos de larga duración :

- El 15 de noviembre de 2018 el primer cobro.
- El 15 de marzo de 2019 el segundo cobro.

El resto de los cursos se abonaran en un solo pago.

Se cobrará la cuantía total en la cuenta corriente proporcionada por el interesado.

6.- Kirol ikastaroei dagokionean honako prezio publikoen araudia onartzea/ Aprobar la normativa de los precios públicos correspondientes a escuelas deportivas :

KIROL IKASTAROAK

ESCUELAS DEPORTIVAS

Kiroldegiko bazkideak Prezio publikoa	2018/2019	Socios Polideportivo Prezio publikoak
2 ordu astean	204,10 €	2 horas semanales
1 ordu astean	102,04 €	1 hora semanal

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kiroldegiko ez bazkideak Prezio publikoa	2018/2019	No Socios Polideportivo Prezio publikoak
2 ordu astean	281,18 €	2 horas semanales
1 ordu astean	140,59 €	1 hora semanal

3. Adinekoen kurtsoei dagokienean honako hobariak aplikatuko dira.

AURREKO EKITALDIKO ZERGA AITORPENAREN OINARRI LIKIDAGARRIA BASE LIQUIDABLE DE LA DECLARACION RENTA EJERCICIO ANTERIOR	% HOBARIA/BONIFICACION
30.000,01-35.000 BITARTE	25%
20.000,01-30.000 BITARTE	50%
15.000,01-20.000 BITARTE	80%
0-15.000 bitarte	90%

PREZIO PUBLIKOAK APLIKATZEKO
ARAUAK

- 1. Izen emateak udal kiroldegiko bulegoetan egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia beteta. Ordainketak helbideratu egingo dira*
- 2. Ikastaroak bederatz (9) hilabetekoak dira. Urrian hasiko dira eta ekainean amaitu.*

NORMAS DE APLICACIÓN DE LOS
PRECIOS PUBLICOS

1. Las inscripciones se harán en las oficinas del Polideportivo Municipal en horario de oficina, mediante la formalización del correspondiente impreso. Los importes se harán efectivos mediante domiciliación bancaria.
- 2 Los cursos son de nueve 9 meses. Darán comienzo en octubre y finalizarán en junio. El

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikastaroen ordainketa bi alditan egingo da. Izena ematen dutenak behartuta daude bukatu arte jarraitzera.

3. *Udalak ikastaroen kobraketa honela egingo du:*

- *Lehen kobraketa: 2018ko azaroren 15ean*
- *Bigarren kobraketa: 2019ko martxoaren 15ean*

Kopuru osoa interesatuak emandako Kontu korrontean kobratuko da.

4. *Ikastaroetan baja emateko eta dirua bueltatzeko arrazoi **bakarra** eta justifikatua onartuko da: lesioa. Baja onartua izan dadin mediku-txostena ekarri beharko da, non adieraziko den lesioaren arrazoia eta ikastaroa ezin egin ahal izanaren arrazoia. Justifikanterik aurkeztu ezean ez da dirurik bueltatuko.*

5 *Bajaren ondorioz bueltatzen den diru kopurua kuotarekiko proportzionala izango da, hau da, eskaera aurkeztu den hiletik*

abono de los mismos se hará en dos cobros. Quienes se inscriban, se comprometen a continuar en ellos hasta su finalización, y a abonar el importe total del mismo

3 El Ayuntamiento procederá al cobro del curso de la siguiente manera:

- El 15 de noviembre de 2018 el primer cobro.
- El 15 de marzo de 2019 el segundo cobro.

Se cobrará la cuantía total en la cuenta corriente proporcionada por el interesado.

4 Se aceptará **únicamente** como motivo para dar de baja en el curso la lesión del interesado. Para que esa solicitud de baja sea aceptada, deberá aportarse informe médico donde se explique el motivo de la lesión y la imposibilidad de realizar el curso. Sin justificante no habrá devolución del dinero.

5 El importe de la devolución motivada por la baja será la proporcional de la cuota, es decir, será la cantidad



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

bukaerara arte falta den denborari dagokiona.

- 6 *Ikastaroa egin ahal izateko gutxieneko partaideak (8) behar dira ikastaro bakoitzean. Behin ikastaroa hasita izena ematen dutenek hilabete osoei dagokien proportzioan ordainduko dute.*
- 7 *U.K.I ek eskubidea dute irakasleak aldatzeko arrazoi justifikagarriengatik. Inola ere ez da itzulketarik egingo monitorea aldatzeagatik*
- 8 *Matrikula garaian egutegi bat emango da, ahalik eta zehatzena, ikastaroaren hasiera data, bukaera, jai egunak... azaldu.*

correspondiente desde el mes en que se dé de baja hasta el final de curso.

- 6 Para que se realice un cursillo será necesario que se cubra el mínimo de participación (8) en cada modalidad. Las personas que se inscriban una vez iniciado el curso, abonarán la parte proporcional por meses completos del mismo
- 7 Las Instalaciones Deportivas Municipales se reservan el derecho de cambiar de profesorado por causas justificadas. En ningún caso se hará devolución por cambio de monitor.
- 8 En el momento de la matrícula, se dará a conocer un calendario lo más aproximado posible del curso con las fechas de inicio, final, días de fiesta, etc.

Bigarrena.- GAOn argitaratzea, 30 eguneko jende aurreko epea ezarriaz. Inolako alegaziorik izan ezean, behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018ko uztailaren 12an buruturiko Ogasun Batzordearen irizmena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Hasierako onarpena ematea 2018ko Ibarra Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketa puntualai, ikasturteko kurtsoei dagokionean

BIGARRENGOA: Hasierako izaerarekin onartzea prezio publikoei dagokien ordenantza

HIRUGARRENGOA: Onarpen hauek GAO n argitaratzea 30 eguneko jende aurreko epean ezarriaz. Inolako alegaziorik izan ezean, behin-betiko izaerarekin onartua geratuko dira.

6.3 2018KO AURREKONTUAREN 2. HIRUHILABETEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA

Ibarra Udaleko Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena aurkeztu zuen. 2018ko uztailaren 12an Ogasun Batzordean azter zezan.

Aztertu ondoren, Ibarra Udaleko Udalbatza honi jakinazten dio 2018 urteko aurrekontuaren 2. Hiruhilabetekoaren exekuzioaren berri izateko.

Udalbatza hau jakinaren gainean gelditzen da.

ZAZPIGARRENA

7.- GIPIZKOAKO BATZAR NAGUSIAK PROPOSATURIKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA: 2016KO UZTAILAREN 7AN GERTATURIKO BORTXAKETAREN KASUAN ZIGORTUTAKOAK, BEHIN-BEHINEAN ASKE UZTEARI BURUZKOA

2018ko uztailaren 20an, 1602 erregistro zenbakiarekin, Gipuzkoako Batzar Nagusiak honako adierazpen instituzionala aurkeztu dio Ibarra Udalbatzari, honek onar dezan:

IZENBURUA

2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin behinean aske uzteari buruzko erakunde adierazpen proposamena.

ZIOA eta/edo AURREKARIAK 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortuak izan ziren bost pertsonak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakiak

2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

gizartean sortu duen ezinegon eta kezka handiak , Gipuzkoako Batzar Nagusiek gaiari buruz jarrera argia eta azkarra plazaratzea eskatzen du.

ERAKUNDE-ADIERAZPENA Nafarroako Probintzia Auzitegiaren atzoko autoa jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortuak izan ziren bost pertsonak, behin behinean aske uztea erabaki duten, Gipuzkoako Batzar Nagusien bozeramaile batzordeak, talde guztien oniritziarekin, honakoa ADOSTU DU:

LEHENIK.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek bere babesa, maitasuna eta elkartasuna adierazten diete biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

BIGARRENIK.- 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiko Autoak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu. Zentzu honetan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko autoa inpugnatu nahi duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

HIRUGARRENIK.- Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu auto berri honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu. Erabaki honek babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen. Hau ez da justizia.

LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ez dutela inolako eraso matxistarik onartzen. Erasoen aurka antolatzen diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, parte har dezaten.

BOSGARRENIK.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten dute, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.

Aurkeztutako adierazpen proposamena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENEGOA: Osoki onartzea eta bat egitea Gipuzkoako Batzar Nagusiak 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin behinean aske uzteari buruzko erakunde adierazpen proposamenarekin.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Gizpuakoako Batzar Nagusiari.


2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZORTZIGARRENA
8- GALDERA ETA ESKAERAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.



2018/07/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018/07/26

20